

Elgetako aldizkaria azaraila 592k.

**83 urte
arotz
lanetan**

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Mayakoen berriak

Feri Nagusiko jaien barruan, Maya Ingurugiro talde moduan, igandean ospatu zen azokan, euskal gozogintzako postua antolatu genuen eta benetan arrakastatsua suertatu zen. Datorren urteari begira produktu gehiago, mota desberdinetakoak, aurkezteko animatu gintuzuen.

Jaien egitarau barruan mendi ibilaldia ere antolatu genuen. Hau Elgeta inguratzen duten tontorrek elkartzen duten zeharkaldia egitea alegia: Azkonabitza, Eguarbitza, Erdella eta Intxorta Asentziotik pasatuz plazara itzuliz.

Giro ezin hobean 20 lagunek parte hartu zuten 30 km.-tako mendikada honetan, nahiz eta aukera izan erdia egiteko. Hiru lekutan Aixola, San Roman eta Asentzion kokatu ziren jan-edateko lekuak. Jendea oso gustora aritu zen nahiz eta txorizoa Aixolan bukatu. Hala ere besteetan ere fruta, ura, ardoa, txokolata, bolloak eta fruitu lehorrak egon ziren.

Ibilbidean gure inguruko hainbat zuhaitz ezagutzeko aukera ere eskaini genuen. Zuhaitz mota desberdinetan bere izen eta ezaugarriak adieraziz txartelen bitartez. Ba al dakizue zer den sequoia bat, nongoa den eta non dugun gure herrian? Jakin nahi baduzue anima

zaitezte, datorren urterako gonbidatzen zaituztegu.

B e s t a l d e t i k
Hirigintzako batzordean aipatu ziren gaien artean honako hauek azpimarratuko genituzke:

Diputazioak proiektua egiten ari da Izarreko errebueltia konpondu al izateko.

EUDELEk, CADEMekin batera, ECOMOVIL kanpaina martxan jar-tzea nahi du. Zer den? Kotxeen azterketa egitea zen eratako konbustioa egiten duten jakiteko eta zein energi gastu duten.

Gure taldetik berriz ere proposatu genuen San Roke Osten belardira kotxe asko sartzen direla eta berau hondatuz, kartel batzuk ezartzea aparkatzea debekatzu.

Bestaldetik, Herri bideak errepetatuz, eskutu genuen eraikitzen ari den bide berritik pasu bat luzatzea bertako herri bidera.

Maya ingurugiro taldea

2000ko jaien balorazioa

Urte honen hasieran, batzordea martxan jarri zenean, ondorengo helburuak zituen:

1/ Herritarren parte hartzea berreskuratzea Helburu hau lortzeko, ingurune zabalena erabili behar zela aztertu zen, beraz, jaietako emanaldi guztiak kalera atera behar zirela erabaki zen.

2/ Emanaldiak ahal diren kalitate onenekoak auke-

ratu ziren.

3/ Jaien oinarri bezala herritarren parte hartzea eta ingurune bezala kalea hartuz, jaien egitaraua herriko giza-talde desberdinei eta era berean, adin desberdinetara zuzentzea nahi zen.

4/ Egun osoa emanaldiz betetzea izango litzateke beste helburuetako bat.

5/Etxez-etxe banatzen diren egitarauetik hasi eta aldaketa sakona ekarriko luketen jaiak antolatzea.

6/ Kanpotik ahal den jende gehiena hurbiltzeko, egitaraua erakargarria eta anitzatza osatzea.

Oinarri eta helburu hauek berriz jaien ondoren aztertzerakoan, jaien batzordeak, balorazio oso positiboa egiten du eta jaiak hein handi batean berreskuratzea lortu dela azpimarratu du. Bai parte hartzearen eta baita kalitatezko emanaldien ikuspuntutik ere.

Argi dago, emanaldiak denon gustokoak izatea ia ezinezkoa izaten dela, baina emanaldien kalitatea eztabaidatu ezinezkoa den gai bat da.

Landu eta hobetu beharreko gaiak ere aztertu dira eta horietan, parte hartzea bultzatuko luketen ekintza gehiago bilatzea, barne antolamendua hobetzea...izango lirateke.

Egitarauari egin zaizkion kritikak (batipat hobetzeko direnak) batzordearen bitartez aztertu behar direla aipatzen dute batzode-

kideek, hau da, nornahik du eskubidea kritika hoiek egiteko eta hobetzeko badira, batzordeak bere gain hartuko litzuzke .

Emanaldiak orokorrean garestiak dira eta aurten bai musika taldeei, antzerkilariei, konpartsa-kideei eta abarri egingandako proposamena ulertu dutela eskertuz, hurrengo urtera begira ez da nahikoa izango guztion ilusioa eta nahia jaiak aurrera ateratzeko; aurtengo mailari eustea nahi bazaio, udal-txeak jaietarako aurrekontua haunditzea ezinbestekoa izango da.

Azkenik, batzorde honi elgetar guztiei esker-rak ematea eta zuen parte hartzerik gabe ospatu duguna ezinezkoa izango zela esatea besterik ez zaio gelditzen, horrenbestez: **ESKERRIK ASKO ELGETA ETA GORA ELGETA-KO JAIK 2.001**

Elgetako Jaien Batzordea

Goibekokalek oporrak

Goibekokalen be opor useina dago, honenbestez, hurrengo zenbakia irailaren 29xan eterako dogu. Ia ordurako GOITB be ikusteko moduan gaozen.

Beste aparteko barik, ondo-ondo pasau eta bueltararte.

Goibekokale

ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



AENOR




Empresa Registrada

PR-0714/2006

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabilioi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



GOITB Elgetara bidean

Joseba Beloki Tourrean bezala ari da Goiena Telebista Elgetarako maldak igotzen. Itsutu barik, baina tinko, eta taldeki-dez inguratuta. Goibeko doa aurrean, erritmo egokia ezarrit. Eta Udalak prest dauzka autoan elikagaiak eta logistika. Iritsiko da, beraz, eta berandu baino lehen.

Zer falta da? Askorik ez. Goibekok eta Udalak Goienari buruzko hitzarmena sinatzea. Eta Elgetako Udalak eta Antzuolakoak GOITBren seinalea Arrasateko Murugainetik Bergarako San Migelera ekartzeko inbertsioa elkarrekin egiteko erabakia. Behin seinalea San Migelen, handik Elgetarako ez da zaila, nahiz eta zailtasunik baduen.

Izan ere, Elgeta ezberdina da, telebista seinaleei dago-kienean behintzat. Goian dagoelako, etxeetatik zuzenean har daitezke urrineko seinaleak, eta ez da herrian haiek bertaratzeko bitartekaririk behar. Eta GOITBk bitartekaria behar!

Azken datuen arabera, badirudi Airtelen dorrea erabili ahal izango dela horretarako. Hau egia balitz, eta Udala azkar mugitzen bada, opor osterako

dena amaituta legoke, Belokiren Tourra bezala, GOITBren Elgetarainoko igoaldia.

Hala ere, consolatrix afflictorum, GOITB ez bada oraindik Elgetara iritsi, Elgeta iritsi da GOITBra. Zuen zenbait ekitaldi, jai eta albiste hasi dira dagoeneko telebistan agertzen. Oraindik baliabide guztiak ez dituen arren, telebistako erredakzioa ahalegin handia ari da egiten herri guztiak bateratuko dituen sarea osatzeko, herri bakoitzeko hedabideak berriemaile bihurtuz. Eta Goibekokalaren erantzuna oso ona izan da. Hain ona, seguru dela Elgetako gairik ez dena fal-

Beharrezkoak dira hurbileko hedabideak. Ez dakigun gerta, adibidez, Rocio Carrasco ezagunagoa -eta beraz inportanteagoa- izatea Bergarako Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria baino.


tako aurrerantzean Goienaren eskualdeko hedabideetan.

Azken batean, hau da saltsa hau dena prestatu izanaren arrazoia, geure burua eta hurbilekoena beste batzuren beste ikusi eta ezagutu dagigun. Esaera zaharrak badio izena duenak izana duela, gaur egun hedabideetan agertzen ez denak ez du ez izenik eta ez izanik. Besteak beste, horregatik dira hain beharrezkoak hurbileko hedabideak. Ez dakigun gerta, adibidez, Rocio Carrasco ezagunagoa -eta beraz inportanteagoa-izatea Bergarako Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria baino.


Etorkizuneko mundua sare zabal bat izango da, globala, edonora eta edonorengana iristeko aukera emango duena.

Gure nortasunak eta hizkuntzak iraungo dute baldin eta sare zabal horretan komunitate izatea lortzen badugu. Horretan laguntzera datoz Goiena eta bere komunikabideak.

Mikel Irizar

 **kutxa**

**gizarte-ekintza
obra social**



Eusko Jaureritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du

Goibeko
k.e.

Tel.: 943 78 90 85
Salbador 2, Kultur Itxea
goibeko@topagunea.com

Aldizkari honen
argitaratzailea



Gipuzkoako foru
aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel.: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Ezteñaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

80 lagunek hartu dute parte Uda Kanpainan

12 urtetik gorako mutilek ez dute parte hartu

Uztailaren 4tik 21era Udaletxeak antolatuta Udako Kirol Kanpaina izan dugu. Kirol kanpaina honetan herritar ugari parte hartu arren ekintza asko ezin izan dira aurrera eraman.


Goizero denbora libre eta multiaktibitatean parte hartu duten gazte-
txoak 38 izan dira. 4 eta 12 urte arteko gaztetxo hauek ekintza desberdin ugari egin dituzte: esku lanak, kirol desberdinak, Apatako piszinetara irteerak...

Nagusiagoentzako beste zenbait ekintza zeuden antolatuta hala ere, aurrera eraman diren bakarrak Aerobika eta dantza modernoa izan dira, hauetan 40 lagun inguruk hartu dute parte. Aipatzekoa da ekintza hauetan parte hartu duten guztiak, bat kenduta, neska izan direla. Hurrengo urteetan Kirol Kanpainarako ekintza desberdi-

nez osatutako programa eskaintzeko asmoa dauka Udaletxeak. Aurtengo partaidetzak ekintza batzuk aurrera ez atera ahal izatea eragin duen arren.

Uda kanpainaz hitz egiteko Joserrarekin egon gara Goibekokalekook.

Zein ekintza antolatu eta zeintzuk eraman dira aurrera? Programan pelota, patinaia, eskalada, mendiko bizikleta eta beste zenbait aktibitate



Mutilen parte hartzea bultzatu gura dute kanpainaren arduradunek.



Lau eta bost urteko haurrek osatu dute aurtengo udalekuetako talde gazteena.

egon arren, aurrera eraman direnak denbora libre, multiaktibitateak, aerobika eta dantza modernoa izan dira.

Nolakoa izan da parte hartzea? Ekintza batzuk ezin izan dira aurrera eraman, batzuetan jende gutxi eman duelako izena eta beste batzuetan ez duelako inork izena eman. Multiaktibitate eta aerobikean beste urteko partaidetza izan dugu. Aerobik eta dantza modernoa gazte eta helduentzako txandak egon dira, beraz

partaidetza hauetan nahiko handia izan dela esan dezakegu. Aipatzekoa da ere, 12 urtetik gorakoendako antolatu diren ekintzetan mutilen partaidetza baxua...

Nola baloratzen duzue Udako Kirol Kanpaina? Udako kanpaina urtero egin den arren, aurten eskaintza haundiagoa egiten saiatu gara. Ekintza batzuk aurrera eraman dira eta beste batzuk ez. Hurrengo urteetan 12 urtetik gorako partaidetza bultzatzen saiatuko gara, bai neskena baina batez ere mutilena, aurten ez baita inor apuntatu.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
ALDI
Tel:
76 80 98.

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Lanak geratuta lurren jabeekin dauden arazoak direla eta

Elgeta eta Eibar lotzen dituen bide berriko lanak geratuta daude, Kantoi inguruko zatian. Karabitxako gurutzeko konpontzeko lanak ordea hile bukaerarako amaitzea espero da.

Karabitxa gaineko gurutzeko konpontzeko lanak bukatzeaz daude, honek Egoetxeaga auzotik bide honetara sartzen direnei istripuak eragozteko aukera emango die, irteztzeko eta bertara sartzeko abiadura jeitsi eta igotzeko bide berriak jarriko dituzte.


Bide honek Elge-

tako irteeran dauzkan konpontze lanak ordea geratuta daude. Udaletxeak diputazioari proposatutako urbanizazioa onartu arren, bertako desnibela konpontzeko orduan daude ezadostasunak dira horretarako arazoia. Udaletxeak aldapa bien arteko desnibela, erdian lautada bat eraikiz konpontzea proposatu zuen. Diputazioak ordea, horrelako tarte txikirako bi aldapa eta lautada egotea ez du onartu. Diputazioak proposatzen duenak Zeleta fabrikako lehioen parean utziko luke bidea eta honek jabe-

ek ez onartzea ekarri du. Bidea baxuago berriztea da azken proposamena, baina hau ere ez dute onartu jabeek.

Kontutan hartu behar da,

inguruan etxe berriak eraikitzekotan direla, bide zaharrera iristen direlarik, dena konpondu arte geratuta daude.



Bukatzeaz daude Karabitxa gaineko lanak, herriko sarrerako bideko lanak, aldiz, geratuta daude..

Abuztuak 5 eta 6an Salbador Jaiak

Abuztuak 5 eta 6an Salbador Jaiak ospatuko dira. Udaletxeak 35.000 pta.tako dirulaguntza eman du, milioi erdiko aurrekontua duten jaiak antolatzen laguntzeko. Urtean zehar egindako errifa, kiniela etab.-ekin programa polita egin dute auzokoek.

Abuztuak 5ean eguerdiko 14:00etan kanpai

hotsa eta etxafleroak izango dira. 16:00etan Mus txapelketa. 21:00etan afari herrikoia eta gaueko 23:00etan Musutruk taldearen erromeria.

Abuztuak 6an Salbador eguna, meza izango da ermitan ondoren salda eta txorixoa banatuko direlarik. 13:00etan trikiti txapel-

keta izango da. 14:00etan bazkaria Bolatoki tabernan. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera bizikleta laisterketa haur eta nagusientzat eta ondoren jolasak. Bolo txapelketa izango da Salbadorren ordu berean. Gaueko 23:00etan Luhartz taldea izango da eta goizaldean txokolatada.

Zabaletako Jaiak

Abuztuak 24 eta 25ean Zabaletako auzoko San Bartolomeak izango ditugu. Oraindik programa guztiz zehaztuta ez izan arren, abuztuak 24an, meza izango da eta ondoren luntxa. Egun guztian zehar bolatokia izango da eta gaua Tapia eta Leturiak alaituko dute. Abuztuak 25ean Gezalaga anai arrebak izango dira. Gauean Bolo txapelketa.

Zerbitzuak udan

Liburutegia uztailak 28an itxi eta irailak 4an irekiko da. Polikiroldegia abuztuak 6tik irailaren 4ra egongo da itxita.

INAKI JATETXEA

Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

ESPALOIA: Herrirako proiektu garrantzitsua

Espaloia proiektua, Goibeko K.E.-ak erabilpen askotarako lokalaren inguruan aurkeztu duen proiektua da. Proiektu honetan Goibekoren esku uzten da lokalaren gestioa. Proiektuaren helburua, lokal hori kultur ekin-tza desberdinak aurrera eramateko erabiltzea da. Goibeko elkarteko kideek uste dute proiektu hau eurekin aurrera eramanez gero bai funtzionaltasun aldetik, bai diru aldetik eta bai kultura ekintzen aldetik askoz ere erosoago eramateko modukoa izango dela.

Esku pribatuetan jausiz gero, kultura atzera geldituko litzatekeela eta diru etekinak ateratzea izango litzatekeela garrantzitsuena uste dute Goibeko kultura elkarteko kideek. Goibekok gura duen bezela, proiektua kultura elkarte honen eskuetan geratuz gero, kulturatik kulturarako egingo den indarra askoz ere eraginkorragoa eta aniztasun handiagokoa izango dela adierazi die Goibekokaleri.


Goibekok proposatzen duen Espaloia proiektuan, dirua ateratzea ekintzak aurrera eramateko motorea baino ez

da izango. Ateratako irabaziak kulturaren inbertitzea aurrikusten da. Espaloian, diru iturriak ondo funtzionatuz gero kultura ekitaldiak eroso egiteko aukera zabaltzen

bidezko berogailuekin, kaferako mahai eta aulkiekin, tabernarekin, eszenatoki egokiarekin...

Proiektu honekin kultura dinamika berri

iturri propioak eskuratzea uztartu nahi dira. Hortaz, kultura proiektuari dagokionean norabide jakin bat ezarri behar da, bi helburu hauek ahal den neurrian batera bete daitezten.



Oraindik lanak egiten badihardute ere, aurten bertan Mendizale elkarteak bertan egingo du Euskal Herri mailako bilera bat.

Goibeko k.e.: "ekimen honekin herri guztiak irabaziko luke, umeetatik hasi eta jubilatuko herritarren plaza izango baita Espaloia kafe antzokia, kulturaren hezitze gunea. Bestalde, dauden oztopoak gainditzeko modukoak dira."

Espaloian, kulturaren lanean diharduten Gaztetxeak eta Udaletxeko kultura batzordeak lekua izango dute eta beraien zenbait ekintza malgutasun handiagoarekin aurrera eramateko aukera zabalduko da. Goibekoko ordezkarien arabera "Kultura beraren barruan sartzen ditugu dantza-jaialdiak, hainbat ikastaro, erretratu

erakusketak, eskultura erakusketak, eskolako umeen antzerkiak, Elgetako soinu joleen kontzertuak, film emanaldiak edo zinea, kafe tertuliak...

Kontuan izanik, Goibeko Euskal Herri mailako elkarte baten kide dela, Euskara Elkarte eta aldizkarien Topaguneko kide, kultur errota barruan gaude eta hainbat ekitaldi

ekar ditzakegu erdi prezioan. Beti ere, egitaraua osatzerakoan aniztasuna irizpide garrantzitsua izango da eta herriko jendearen eskuartzean oinarrituko gara. Horrela, gune honetan adin guztietako jendea sartuko dela uste dugu eta bide batez beste kultura eragileei bizitasuna ematea nahi da. Gure nahia herri guztia

proiektuan bolkatzea da eta denon artean Espaloian dinamika osoa emanez herriari bizitasuna ematea. Goibeko-kobatzarkideen esanetan "ekimen honekin herri guztiak irabaziko luke, umeetatik hasi eta jubilatutako herriarren plaza izango baita Espaloia kafe-antzokia, kulturaren hezitze gunea."

Talde guztiek diotenez ESPALOA proiektua ona da

Espaloia Proiektuarekin zerikusia duten talde desberdinek eman dute iritzia:

Patxi Basauri, EAJ-PNV/EA

Espaloia proiektua ontzat eman dute. Uste dute aurkeztutako proiektua, guztiz ados datorrela erabilpen askotarako gelaren proiektuaren filosofiarekin. "Udaletxeak hasieratik, gela hori ekintza desberdinetarako erabiltzeko asmoa zuen", eta proiektuak horretarako erraztasun guztiak aurkezten ditu. Gainera proiektua guztiz eramangarria da beste talde batzuen ekintzekin, bai Udaletxearen ekintzak, bai Gaztetxeak... "Udaletxetik oso interesgarria ikusten da proiektua eta nahiz eta oraindik ere azken erabakia hartu gabe egon, talde politiko guztiek onartzea espero" dutela diote.

Santi Dosuna, Guraso Elkarte:

Guraso Elkartearen lehendakaria den Santik esan digunez, Guraso elkarteak proiektua ontzat eman du, honek herrian kulturari emango dion bultzakada oso garrantzitsua izango delako. Proiektuaren inguruan berri zuzena hartzeko azalpenak eman ziren beraien batzarraren. Proiektua ontzat eman arren, guraso batzuek ez daude ados proiektuak proposatzen duen tabernarekin, eskolatik gertu gelditzen delako. Hala ere aipatu beharrezkoa da gurasoek ez dutela azken erabakia hartu, "irailean

haurrak eskolara bueltatzeari izango da, proiektuaren alde edo kontra dauden erabakietzoko garaia".

Olaia Jimenez, EH:

Espaloiko proiektua bera ona dela pentsatzen dute. Hala ere, oraindik ez dute izan azken erabakia hartzeko bilera egiterik izan. Proiektua herriarentzat

mesedegarri aurrikusten dute. Kultura Batzordearen dagoeneko aurkeztu da proiektua eta, proiektua herrian kultura bultzatzeko abiapuntuetako bat izan daitekeela pentsatzen da. "Proiektua ona" dela aipatu da batzorde honetan, hala ere "guraso elkartearen eritzia kontuan hartu behar" dela dio batzordeburuak.



Goibekoko bazkide guztien (boto bat zuri) oniritzia jaso du ekimenak. Dauden oztopoak gainditzeko modukoak direla uste dute.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g. 20690 ELGETA
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

Jarri zure iragarkia
Tel:78.90.85

Zein asmo dakazu aurtengo oporretarako?



Naroa Sarasketa
(17 urte) Ikalia

Abuztuan juergaz juerga ibiltzeko asmua dakat, uste dot honezkeru astebukaera danak okupauta dauzkatela. Hortik kanpora Elgeta inguruan ibiliko naiz.

Oporretara Peniskolara noia nere guraso eta anaiakin eta hemen nagon bittartian pistinara eta plaia-
ra juango naiz. Aspertzen be hasita nago eta eskolan be gustora hasiko nitzake.

Kepa De Vega
(7 urte) Jkaskia



Ainhoa Llanas
(22 urte) Jkaskia

Seguruenik Leonera juango naiz nere guraso eta familixiakin bestela ez daukat beste aparteko gauzaik. Azken baten deskansau egiñ bihar da oporretan.



Jesusita Turrigaztelu
(50 urte) Etxekoandria

Ezt daukat iñungo asmoik Elgetatik kanpora juateko. Bertan geratuko naiz eta bertatik ibilliko naiz haruntz eta honuntz.


Oingo urtian ez dakat asmoik iñora juateko, bertan geratzia pentsatu dogu eta hori bai hemendik be bueltatxo batzuk emongo doguz Azpeittira eta...

Migel Angel Alberdi
(53 urte) Bihargiña



Hasteko, Parisen 8 egun pasatzera familia guztiakin, eta beste egunetan pistinara juango naiz familia eta lagunekin. Salbador egunian be hemen ibilliko naiz.

Enaitz Ezpeleta
(13 urte) Jkaskia



Kartetan jokatzeko giro egokia

Kopa bat

Tel: 768093

Patxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

Aries: Iztarrixa ez dakazula halako fiña? Badok/badon erretziai lagatzeko momentua, baiña aittu ondo, erretzia!
Goi eguna: 28, beko eguna: 30.

Taurus: Euzki galdatan egon bihar bahaiz, emoik/emoin kremia barra-barra bestela erreko haiz . **Goi eguna: 30, beko eguna: 1, kale eguna: 5**

Geminis: Hankarteko miñoi ez dok/don larritzekua; lantzian behin komunera bueltatxo batekin pasauta. **Goi eguna: 30, ez beko ez kale egunik.**

Cancer: Hik, Madalenatan be ez dok/don iñor harrapauko. Ez mama-laik ezta momoloik be. **Goi eguna: 6, beko eguna: 4, kale eguna: 29.**

Leo: Iraillerako lagatako asignaturak zer ? ekin gogor!. **Goi eguna: 4, beko eguna: 30, kale eguna: 6. Beste danak ikasteko egunak.**

Virgo: Legiakin arazuak kalian txisa egittearren? galdetu Gemini bati zelan aguantatzen dan... **Goi eguna: 29, Beko eguna: 2 kale eguna: 28.**

Libra: Merezi jok/jon kostatako mitxelinak galtzia? Hala badok/badon segi aintxitxika. **Goi eguna: 2, beko eguna: 7, kale eguna: 8.**

Escorpio: Parejiakin beti ospa egitten ibiltzia baiño hobe dok/don behingoz gauzak argitzia, ez?? **Goi eguna: 29, beko eguna : 3, kale eguna: 5.**

Sagitarius: Diruai begiratzen jarraitu ezkerro kanpin dendia hartu eta alboko zelaixan egongo haiz edertuen. **Goikua: 9, bekua: 31, kale eguna 5, 6.**

Capricornius: Oiñarte betetzen ibilli haizen itxulapikua apurtzeko sasoia heldu dok/don; **Goi eguna: 30, 31, beko eguna: 5, kale eguna: 7.**

Acuarius: Hatzazkalak jatia edukaziño txarrekoa dala eta oiñ, mokuak jaten ? Ez dok/don merienda biharrik euki-ko? **Goikua: 4, bekoua,30, kale: 6.**

Piscis: Nahixau dok/don ehizatua izatia ehizan ibiltzia baiño. Ez haiz azian azpiko orrixa hi! **Goi eguna: 29, 30. Beko eguna: 3, kale eguna: 7**

Jesus Mari Montiel (37 urte) Iturgiña

Zenbat urte iturgintza lanetan? 17 urte dauzkatenetik.

Honen lanonen aurretik besten bat euki ziñuan? Ez, nere betiko lana izan da.

Bakarrik moldatzen zara zure lanian? Bai, baiña ahal dan moduan.

Oporretara juateko leku bat? Oingo urtian, Santander aldera noia.

Elgetan iturgintza denda bat jartzia biharrezkua da? Bai, baiña jentia ez dau baloratzten.

Egin dozun lanik gogorrena Elgetan?

Seguruenik udal-
txeko lanak kalian
eta eurixakin toka-
tzen diranian.

Egunian zenbat aldittan juaten zara komunera?

Pare bat aldiz.

Etxeko txokorik gustokuena?

Salia, musika
piskatekin.

Ez aspertzeko aholku bat?

Oporretara juatia
eta etxian ez ego-
tia.

**Neskak ule motza ala luzia-kin? Ez da inpor-
ta.**

Hemendik urrun bizitzeko leku bat? Txina.

Goikokalia ala bekokalia nahixau?

Goikokalian jaio
naiz baiña bixak

dittut gustoko.

Zure bizitzako momenturik gusto-kuena? Nere alabak jaio ziranekua.

Bizitzan egin dozun barbaridade bat? Lehengo Asentzioko jaixetan

tabernia jartzen zan eta gauzak Salbador kaleko garaje baten sar-
tzen zittuzten, bertara jua eta kris-
ton mozkorra harrapau neban.

Lanerako eguraldi ona ala txarra?

Lanian gustora zabizenian ez dau
inporta izaten eguraldixak.

Kantzontzillo motzak ala luziak? Motzak.

Horrelako entrebista bat zeini egingo zontzake?

Joseba, txaletekuai.



Horroroskopua

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua
Igeltzeritza lanak




Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156

Goibekokale 59.zk

Bizitza osoa arotz

83 urterekin egurra lantzen jarraitzen du Esteban Olaortuak



Honezkero arotz lanaren inguruan jakin beharreko dena daki Esteban Olaortuak. Hamahiru urte bete aurretik, etxeko gurdien gurpilen ejeak berak egiten zituen, "baita inguruko beste hainbat baserrietakoenak ere" Estebanek aitortzen duen bezala. Egun, 83 urte beteak izan arren, lanean jarraitzen du, eserlekuak direla, atek direla... gora eta behera. Nola ez, etxeko atek, eserlekuak, eta egurrarekin egin daitezkeen gauza guztiak berak eginak dira.

Laurogeita hiru urtean gauza asko ikusi eta ikasitakoa da Esteban Olaortua. Garai txarrak ere bizi izan ditu Estebanek, berari, beste aitona-amona askori bezalaxe gerra garaia bizitzea tokatu zitzaion eta. Baina ez dira denak ahazteko moduko oroi-

tzapenak. Gazte zela, Gasteizen izan zen gaztelaniaz ikasten -gezurra dirudi gaur egun bizi dugun egoera ikusitabaina laster etorri behar izan zuen bueltan, "Gasteizen lana bazeguan be, etxian nahikua lan" zegoela eta.

Hogeita hiru hilabete eman zituen soldaduzkan. Han ere arotz lanak egitea egokitu zitzaion, berarentzako jakineko lana zen. "Hogeita hiru urte emon nittuan soldaduzkan. Nahikua suerte ona izan nebala esan leike, beste askorekin konparauta, ez neban eta denbora larregi egiñ. orduan arotz lanak egin nittuan, bestiak beste. Oso gazte nintzanetik hasi nintzan arotz lanean. Lehen, gurdixak burdinazko erroberak zittuenian, ardatzak egurrezkoak izaten ziran. Seguru-enik, hamahiru urte bete orduko ibilliko nintzan

lehenengo ardatzak sartzen, geurian zein beste hainbeste basarritan. Hala egitten neban Altuben, Urbereinkatun... Altube-rako gurdi bi osuak egindakua naiz. Holako zeozer egin behar zanian, danak jotzen zeben Estebanengana".

Ordutik ona etengabe lanean

Hasiera batean eginbeharrera zena, denbora aurrera joan ahala ofizio bihurtu zen. Arotza izaki, etxeko hainbat gauza ere Estebani egokitu zitzaizkion egitea. Eguarbitzan aurkitu daitezkeen, eserleku, eskubara, ate eta beste hainbat gauza Estebanek bere eskuekin egindakoak dira. Baita traktorearen atzeko kaxa ere. "Etxeko egur lana zein teillatua neronek egindakua dira. Blokia kenduta, aulkixak, atiak, deposittua... traktoriaren

erremolkia be aldatu egin neban eta neronen gusturara jarri. Egurretan asko ibilitakuak gara, eta holako kontuen gaiñian zeozer jakin badakigu".


Asko aldatu da, beste lanbide gutzietan gertatu bezala, arotz lana azken urte hauetan. Lehen, egun baino baliabide gutxiago zuten arotzek eta prosezua guztia beraiek egin behar izaten zuten. Egurra aukeratzetik, lana amaituta egon arte. Horrela azaldu zigun Estebanek. "Neronek aukeratzen neban egurra. Egur ederra ikusitiaz bat moztera juaten nintzan. Sasoian-sasoikori jotzen notsan. Lizarra, pagua zein beste egur mota izan sasoian zegua-



nian moztzen neban. Moztu eta gero, etxera eruaten neban sikatzera. Hori moztetik eukitzen nebanian, batzutan ezinezkoa izaten zan eta. Geroko lan guztia be neuk egitten neban”.

10 urtetan prezioa aldatu barik.

Egin beharreko lanaren arabera materiale ezberdinak behar dira. Eserlekuak egiteko adibidez, gaztaina erabiltzen du Estebanek. “Silla bat egittia nahi badogu, ezinbestekua da gaztaina. Moztu ostian, uretan ipiñi bihar izaten da sikatu deñ. Beste material batzuekin bestelako prozesua egin bihar da. Zenbait gauza egiteko, egurra sikatu biharra dago, urtebete inguruan normalian. Hori egurroi mehe moztuta egon ezke-



Makiñatxo bat lan egindakoa da Esteban. Argazkian hauetako batzuk.

ro, littekena da denbora gutxiaguan sikatzia”. Banan-banan egin beharrean katean egiten ditu egin beharreko gauzak. Horretarako, gero eta

erraminta hobeak erabiltzeko aukera du. “Prozesu guztia katian egitten dot eta ez banan-banan. Egixa da, gaur eguneko erramintak lana errezten debela. Oñ erabiltzen ditudan zerrek, esaterako, aukera gehixau emoten doste”.


beherapenak noiz egingo ditudan esan zotan. Beherapena? Azkenengo hamar urtetan preziorik igo ez dotela erantzun notsan”.

Beherapenekin edota barik urte askotan jarraitu dezala lanean.




83 urteko Estebanek lanian darrai.

Gizarte kontsumitzaile honetan, prezioek berebiziko garrantzia dute. Esteban Olaortuak ez du preziorik aldatu azkenengo hamar urteotan, eta oraindik beherapenak noiz egingo dituen galdetzen diote: “Bizi mailla asko igo da azkenengo urtietan. Sokian prezia esaterako, bikoiztu egin da. Hala eta be, oin dala hamar urteko prezioei eusten dotset. Ondiokan, Juanitak ia




Gaztak ipintzen dira hemen sikatu daitezen

HAIZEA
TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.

Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Nola egiten dute Galiziarrek "QUEIMADA"?

Oraingoan, beste herrialde bateko sukaldeko ohitura batekin gatozkizue. Edari honek bere inguruan misterioz betetako usadioak ditu.

Ingurua ondo girotu eta sorgindu ondoren, sorginen ipuinak eta istorioak kontatu eta gizona eta suaren arteko erritoa burutzeari deritzo QUEIMADA.

Edari honen funtsa, pattarra azukrearekin, fruituren batekin (sagarra, limoi azala) eta kafe ale batzuekin nahastean datza. Sutan erretzen lagatzen dira kazo batekin eraginez, ilunetan, suak indarra galdu arte. Usadio hau eskenatoki

berezi batean burutu behar da. Erretzen diharduen gizonak, bere ispiritua eta nahia suari eskaini behar dizkio, horrela suak gizona argitzen du eta besteekiko komunikazioa etengabea izatea lortuko luke. Erretzaileak (druida), koplak eta konjuroak kantatu behar dizkio erritokak dirauen bitartean.

Historiari begirada bat eginez, Queimadaren jatorria XII.mendea baino lehenago kokatzen da. Arabiarrek asmatutako "alambiques" delakotik lortzen zelako pattarra, eta berauek garai honetan heldu zirelako bertara; azukrea ere Islamarekin batera sartu zen Galizian.

Emakumearen presentzia ere ezinbestekoa da, beronek ematen baitio giroari erotikotasuna bai fisikoki eta baita, sorgin edo Meiga eran.

Queimadaren ingurunea beti ere herrikoia edo eta, nekazal girokoa izan da orain gutxi arte. 40. hamarkadan, Castroviejo doktoreak herritik hirira eraman zuen eta derrigorrezko ohitura

bilakatu zuen.

Orain, bilera baten edo ospakizun baten ondorenean egiten den erritokoa bilakatu da. Bertan parte hartzea berez, festa da, galiziarrek beren herritik urrun daudenean sentitzen duten herri miña edo morriña itozteko ere izaten da.

Elgetan ere ohitura billakatu da saskibaloiari ohiek "queimada"



Galiziarrek ez direnek ere sartualdi edarrak egiten dituzte.

egitea. Sorginei urterotterto deitzen diete.



konjuroak egiten dituzte? Sorginkeriak seguru baietz. Saskibaloia ahaztu xamar badute ere, jan edanean finak dira.

ERREZETA MAGIKOA

-3l.pattar galiziarra

-375gr. azukre zuria

-Limoi helduaren azala

-Reineta erako sagra

-koilarakada bat kafe aleak.


ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraordokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA



San Roke 6
Tel: 768168

Euskal Herriko Goiti-behera Txapelketa

"Euskal Herriko Goitibehera Txapelketa"ren azken froga iraileko 16an izango da Asentzioko gaina eta Eskoletako bihurgunea bitartean. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da eta bukaeran frontoian egingo da sari banaketa. 1999koa izan zen antolatzen zen lehen aldia, baina antolaketa aldetik oso maila ona erakutsi eta aurten errepikatu egin da. Aurreko frogak Askainen eta Urnietan egin ziren eta Angiozarkoa azkena izango denez interes handiagoa du. Beraz, urrin zamar dagoen arren, apuntatu eguna, arratsalde pasa bertan txapelketaz gozatzeko.



Udaleku ireki arrakastatsuak

Azkenengo urte hauetan gertatu den bezala, gaztetxo ugari ibili da Udaleku-Irekiak 2000 ekitaldiko ekintzetan parte hartuz. Argazkian ikusi dezakezuenetz, aste bat oso Bergarako igerilekuetan eman dute eta goizeko freskuran igerian ikasi arratsaldez Loidiko "hondartzara" joan eta bertan ikasitakoa praktikatzeko.

Igerilekuak arrakasta izan badu beste egunetako ekintzek ere ez dute jende gutxiago erakarri eta gaztetxoak gustura gelditu dira izan duten giroaz.

"Eskola Txikien Eguna 2001" Angiozarren

Datorren urteko Gipuzkoako Eskola Txikien eguna Angiozarko Herri Eskolak antolatuko du eta gure herrian ospatuko da. Hori dela eta Guraso Elkarte dagoeneko lanean hasi da eta jaialdirako logotipoa izango dena ere egin du. Marrazki edo ikur hau jaialdia identifikatuko duen sinboloa izango da eta, esan digutenez, iraileko jaietarako prest edukiko dituzte

kamiseta eta beste hainbat gauza salgai ipintzeko. Kamisetak erosteaz gain denon laguntza beharko da arrakasta osoz ospakitzuna burutudadin eta gure eskola eta herria ezagutzera

emateko. Ikasturtea aurreratu ahala joango gara, Goibekokaleko parte honetan, programa zehaztuz.



Tabernen oporrak

Taberna Zaharra abuztu osoan zabalik egongo da.

Ortzi, abuztuaren 1an, martitzena, hasi eta irailaren 1erarte, barikua, itxita. Irailaren 2an zabalduko da.

Behoko Taberna, abuztuaren 14tik, astelehena, irailaren 3arte itxita. Irailaren 4an zabalduko da.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador. 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

VIVO
Janari
Jendakari

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxe: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Josu De Vega eta Luis Zabaleta : "Pena da kirol instalakuntza egokiak ez izateagatik herriko haurrak kanpora joan behar izatea"

Luis Zabaleta eta Josu de Vega Elgetako haurren eskola-kirolaz ardurtzen diren gurasoetako batzuk ditugu. Orain arte koordinatzaile lanak Josuk eraman dituen arren, hemendik aurrera lan hori Luisek beteko du.

- Zer dela eta uzten duzu koordinatzaile lan hori eta Luisek esku laga?

Josu: Kirol arrazoiemgatik uzten dut. Bergarako jubenil mailako taldean entrenatzeko eskaintza bat izan dut. Kargu hori onartu aurretik, eta eskola-kirola aireanez uzteko gauzak lotu nahi izan ditut. Orduan ba, nola Luis hasieratik nirekin dagoen bera izango da orain arduraduna.

Luis: Josukin urtetan egon naizenez gai bera eramaten, gauza erraza da niretzako. Ordu askoko lan ez denez ez dut asko pentsatu.

- Noiz hasi zen eskola-kirola Elgetan?

J: Orain del a zazpiren bat urte hasiko zen. Fernando O. hurrekin ibiltzen zen entrenatzen. Haurrak hor ikusten genituen jolasean beti elkarrekin. Bergarako jendearekin kontaktuan ipini ginen, beraiek zer egiten zuten jakiteko. Talde bezala apuntatzeko gonbitea egin ziguten. Honela Kirol-anitza programaren barruan geratu ginen. Hau da, futbola eskubaloai eta saskibaloia.

L: Fernando bere mutikoak

hartu eta bere kabuz eskolako mutil-neskak entrenatzen hasi zen. Gero guk Bergarara jolastera joateko aukera komentatu genion. Hasiera batean ez zuen onartzen kanpora joate hori.

- Nola konpondu zineten azkenean?

L: Normala zen kanpora ateratze horrek beldur pixkat izatea. Inoiz ez ginen kanpora atera; ez geneukan beste lekuen berri...

J: Nik nahiko garbi neukan. Elorrioko ikastolan zortzi urtez izan nintzen entrenatzaile eta bane-kien zer zen hori. Hainbat Bizkaiko eta Euskadiko txapelketatan egona nintzen.

- Ze emaitza lortu dituzue urte hauetan?

J: Lehenengo urtean nahi partida gutxi irabazi genituen. Hau gutxi balitz, Bergarako jendea beraiekin sartzen zen. Denetarik deitzen zieten, "aldeanos", "caseros"... Orduan gure mutilak sutan jartze ziren eta gu eusten saiatu arren esku bat edo beste joan zen. Gauza da, hurrengo urtean jendeak errespetuz tratatzen zizutela. Beraiekin sartuz bazekiten zer zeukaten. Etzuten partidurik galdu hiru kiroletan. Azken urtetan ere oso ondo ibili dira, aurten saskibaloian txapeldun...

L: Neskak ere ongi jardun dute. Kosta zitzairen hasieran baina kopak ere lortu dituzte.



Josu eta Luisek hurrekin oso gustora dihardute

- Ze laguntza jasotzen duzue?

J: Herritik ez dugu dirurik jasotzen. Egia esan, ez diogu inori laguntzarik eskatu. Egiten duguna borondatez egiten dugu. Gure filosofiaren barruan etzegen dirua eskatzea. Diputaziotik jasotzen dugu dirulaguntza bakarra. Kurtso bukaeran diru horrekin lagundu duten gurasoekin afari bat egiten dugu. Hori bai, enpresa batek publizitatearen truke arropak eman nahi balitu guk atea zabalik ditugu. Iñaki jate-txeak egin duen bezala.

L: Lehen dirua ematen ziguten baina orain diputazioak kilometrajea ordaindu eta kirol arropa ematen digute. Kilometroa zazpi pezetan ordaintzen digute. Azkenean ez du merezi diru hori banatzea; afari bat egiten dugu eta kito.

-Dirua ez baina, zer eskatuko zenuke?

J: eta L: Esan behar dugu

lehenik polikiroldegia gaizki egina dagoela. Eta hori horrela da. Ez dauka neurri egokirik. Orain udan beno, baina lotsagarria da neguan adibidez, lau argi edo foko ez izatea seietatik aurrera kanpoan entrenameduak egiteko. Gainera 13 urtetik aurrera neska-mutilak kirola egitera kanpora joan behar dute. Ezin dezakegu aurrera jarraitu. Instalakuntza aldetik mugarituak gaude. Pena bat da, futbol zelai bat izanez gero oso talde on bat izango genuke.

- Zuetaz gain nortzuk diharduzue?

J: Nirekin entrenatzen Iñaki Gorostiza ibiltzen da, Iñaki Maguregi, Emilio neskez arduratzen dena eta gero kotxea eramaten duten beste guraso guztiak.

L: Aurten hiru talde izan ditugu eta gehiago mugitu behar izan gara.

Roger Lucia Valentziarra, Euskadiko Mendi kriteriumean garaile izan zen

129 txirrindulari parte hartu zuten joan zen zapatuan Euskadiko Mendi kriteriumeko lasterketan. Azterketa azkarra izan zen, irabazlea Banaka taldeko Roger Lucia izan zen. Elgetakoarekin, asteburu berean lortutako bigarren garaipena izan zen Roger Luciak eskuratutakoa. Beste garaipena asteburu bereko zapatuan lortu zuen Durangoko lasterketan. Hemen ere azken portuan ihes eginda iritsi zen helmugara. Bakarrik heldu zen Roger Lucia Elgetako helmugara azken

kilometrotan eraso jo ondoren. Bigarren izan zen Iñigo Urretxuari (Saunier) 26 segunduko alde atera zion. Lasterketa zati handi batean Lander Euba (Olarra) eta Francisco Lara (Avilas Rojas) ihes eginda ibili ziren baina pelotoiak harrapatu egin zituen. Elgetara igoeran iheslariak ere egon ziren baina irabazlearen taldeak bertan bera uzten zuten ihesaldiak. Azkenean, Luciak igoera izugarri bat egin eta Iñigo Urretxua atzean utzi zuen hiru kilometroren faltan.



Urtero moduan Zabalaneke Imanolek eskopeta eman zion irabazleari.

- sailkapena**
- | | |
|--------------------------|-------------------------------|
| 1-Roger Lucia(Banaka) | 4-Juan Olmo (Av.Rojas) |
| 2-Iñigo Urretxua(Olarra) | 5-David de la Fuente(Saunier) |
| 3-Sergio Perez(Baque) | |

Bi egunetan bi garaipen

Roger Lucia 26 urte dituen Valentziako Massamagrel herrian jaiotako txirrindularia da. Bigarren denboraldia du Banakan.

- Pozik lortutako garaipenaz?
 Bai oso pozik. Bi egunetan bi garaipen lortuta pozik egoteko modukoa da. Ezin da gehiago eskatu.
- Noiztik zabilta euskal erepideetan?
 Iazko denboralditik. Beno 94an Donostialdeko talde baten aritu nintzen, baina

azken bi urteak Banakan aritu naiz.
- Ze beste garaipen lortu dituzu?
 Gaurkoarekin Euskaldun Txapelketan irabazi dudana 3.lasterketa izan da. Duela bi aste Alegin eta atzo Durangon(uztailak 15) irabazi nuen. Gero, hainbat biratan garaipen garrantzitsuak lortu izan ditut.
- Nolako izan da lasterketa?
 Oso gogorra izan da. Ez dut inoiz hemen korritu baina lasterketa oso gogorra zela komentatu zida-

ten. Lasterketa hasieratik azkar joan da, ihesaldiak izan dira. Ihes eginda zihorazaz Tegu eta Cropusako bi iheslari harrapatu dituzte nire taldekideek eta nik 3 km.ren faltan eraso jo eta bakarrik heldu naiz helmugara.
- Zer egingo dezu eskopetarekin?
 Ikusiko dut zer egiten dudana. Ni ez naiz ehizaza-

lea baina, lagun bat edo izango dut.



ZABALA

Lasao 6 Elgeta
 Tel: 768075-6 768225
 Faxe: 768201

HERMANOS S.A.

EHIZARAKO ESKOPETA EGILEA

Païtta batekin bizitzen



Kaixo Goibekokaleko irakurtle guztioi. Gure païttaren gainean berba egitea eskatu ditute eta horixe egingo dugu. DEISI, gure pai-ttaren gora-beherak dira orain-go zenbakirako prestatu-takoak.

Besterik barik, bere bizi-tza kontatzen hasiko gara. Gure païttaren izena "DEISI" da. Apirilak 15ean Bergarara joan ginen futboleako partidu bat jokatzera eta partidu hori amaitu eta gero Bergarako ferixa ikusten gelditu ginen. Bertan païtta txiki batzuk ikusi genituen eta bi erostea pentsatu genuen. Bat arra zen, Donald; bestea, emea, DEISI.

Denbora tarte bat pasatu eta gero Donald hil egin zen begiko gaitzen batek jota. Deizi oraindik ere bizi da eta ondo gainera. Guk uste genuen baino lehenago handitu da eta ahalegin handian egin eta gero egan egiten hasi da, hala ere, oraindik beste gauza baten zain gaude, arrautzak ipintzeko zain.

Bere bizitzan zehar etxerik etxe ibilida, berarentzko apropos egindako txabola batea. Egia esan, guk uste genuen baino zailagoa da païtta bat zaintzea. Gainera, garbia ematen du, baina oso zikina da. Egun osoan zehar bere ardurapean ibili behar izaten dugu, garbitzen, kalera ateratzen...

Orain oso handia egin da eta ezin dugu païtta etxean eduki. Nahiz

eta guk ez dugun nahi, lekuren batera eramatea derrigorrezkoa da eta halaxe egin behar-ko dugu oraindik nora eraman pentsatu ez badugu ere.

zenean guk ez genekien hanken kontu hori eta hankak nahiko

izurratu zitzaizkion.

Gure kurekin, olioarekin...

osatu zitzaizkion eta

orain nahiko ondo dauzka.

Pen-tsatu dugu Zarautzko païtten parkera eramatea, han

oso pozik biziko litzateke, baina oso urrin gelditzen zaigu bizitzateko. Elgeta inguruko herriren atera edo Elgetan bertan lagatzea nahi dugu. Orain momenduan ez dakigu non lana, erreka batean behintzat ezin dugu laga, berak bakarrik ez dakielako defendatzen eta ez dakielako arrantzan.

Espero dugu testu honetan aipatutakoarekin kontuan hartze animalia bat ez dela jostailu bat, ardurari handi bat baino.



Kontuan izan behar da païtta bat dela eta ezin dela galipotean, zementuan... denbora luzera ibili, hankak gaztatzen zaizkiet eta. Horregatik eskuetan erabili behar izatne dugu belarra topatu artean.

Txikiagoa



IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

GOITB-rako aurkezle lanak egin zittuana zan, Ainara Iribar. Ainara Iribar izan zan GOITB-k jaixetako programia egitteko fitxau zeban andrazkua. Pillo bat elkarrizketa egin zittuan kalia eta ez da bape zailla izan erretratukua bera zala asmatzia. Gaiñera, sarri ikusiko ziñuen bestela be Goibekokalerako elkarrizketak egitten. Askotan ibiltzen da Gorka Arizmendiarretarekin batera kalia, bateron-bati halako edo bestelako galderak egitten. Itxuria danez, Odei Zenitagoiak be ikusi dau noiz edo noiz. Berak igarri dau behintzat zein zan lehiaketako irabazlia eta, hori hola izanda, gura dabenian kamista pare bat hartzera etorri leike Goibekokalera.

Hurrengo asmau biharrekua zein dan? ba, hor azpixon dakazuen zirriborrua. Nun agertu da? Zer ipintzen dau hor marrazkixan? Honek galderok erantzuten dittuanak beste kamista pare bat eruan-

go dittu, Horretarako idatzi Goibekokalera. Salbador kalia gare, 2. zenbakixan Kultura Etxian. Gura izan ezker helbide elektronikora be bialdu zeinkie mezutxo bat: goibeko@topagunea.com helbidera hain zuzen be.





Hau leitzeko orduan gehixenok oporretan, edo ixa oporretan egongo gazela eta, neri tokatzen jatan hau sermoitxuau botatzeko honexen gainian berba egittia okurridu jata.

Ezer biño lehe-nau esan bihar dot neu be lastenr fango naizela, oso laster, eta horregaittik kostatzen jata gaurkuan horrenbeste honek ber-bok eskribitzia. Biharrerako goguak eta inddarrak gastau samar dakaraz eta horregaittik nabil hain nekez.

Baiña, nekiak neke, eskribidu egin bihar da eta aurrera. Ze esana aurreko astian Donostian

Bakaziñuak

egin neban egotaldixak emon zotan; izan be, San Juanak inguratu ahala, udazkenian usuak moduan, pasian etortzen jakuz afrikarrak. Kotxiak goraiño bete, bai pertsonekiñ, eta bai gauzekiñ, eta hor dabiz Europa osuan zihar euren etxerako bidian.

Horren bakaziñuak holakuak izango dira: euren etxian ahalik eta aberatsen agerteko,

bestela zertarako sufridu dabe hainbeste negu osuan? Kotxiak ondo ondo bete eta jarri bidian. Suerte piskatxo batekiñ, Españako beheko punta horretara aillegau eta daganian barkua hartu eta etxera.


Pentsatzekua da honen aberastasunak ikusitta beste hainbat animauko dirala datorren urtian, eta hor etorriko jakuz udazkenian kontra-

pasian, eta honentzako hauxe da problema: kontrapasia; izan be, kazari-rik zoruenak biño zoruau jarri dira "España Grande" bihar dabenak eta hor izango dittue, mendixan izan biharrian itsasonduan, zain, ez akabatze-ko, baiña bai berriro bueltan bialtzeko, eta hor buelta emotian iñor hiltzen baeda gutxi ingporta datsela.

Bittartian beste Europarrok haingat eta hainbat lekutara fango gara gure diruak funditzera, eta ez dogu nahi izango holako gauzatan pentsatzia, baiña hori be egiñ egin bihar d, lepo gainekua kolorez dotore jartzeko izatian gain, bete zezertarako be bada eta.

Jabier Aratzeta

kazaririk zoruenak baiño zoruau jarri dira "España Grande" bihar dabenak eta hor izango dittue, mendixan izan biharrian itsasonduan, zaiñ, ez akabatze-ko, baiña bai barriro bueltan bialtzeko



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B
Tel: 943.76.82.14

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**




Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.



tel: 768273



M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



Erretratua: Patxi Zabala

Julion despedidakua

Ordukotxia da hau erretratuau, Juliok despedidia egin zebanekua. Zabalaneke Patxik aspaldi bialdu zeban Goibekokalera hau erretratuau eta gure buleguan euki izan dogu begibistan, baiña ezin ikusika. Abuztua be badator eta papel guztiak ordenatzen ekin gazenian agertu da berriro be hau erretratuau eta sekulako pozakiñ ez dogu asko pentsu biharrik izan Goibekokalen etaratzeko. Eskerrak emon biharrian gare Patxi Zabala eta familixiai holako pazientziakiñ intxoitxearren.

Seguru zuetako askok uda aldian garbittasuna edo ordenau biharra eukitzen dozuela. Holako eginbiharretan erretraturen bat topau ezkeru ez euki dudarik, bialdu Goibekokalera eta guk berriro bueltauko dotsuegu, ahal dan bizkorren. Izenekin badator erretratua hobeto. Patxi Zabalak be izen eta guzti bialdu zozkun erretratua, txakurran izen eta guzti. Honetxek dira ageri diranak:

Goiko hillaratik hasitta: Iñaxio Txaraka, Eulogio Arotzena, Txomin Altube, Felipe Herrero eta Anton Porru.

Beheratxuau: Luis Berraondo, Juane Bentafria, Jose Kaleon, Santi Larreategi, Jose Antonio Larreategi, Patxi Lapurdi, Migel Akiliño, Ezezaguna, Maximo ikatzarre, Jose Mari igeltzerua, Pedro karnazerua, Alberto Lopez. Erdi inguruan dagona Julio Panaderokua da, despedidia egin zotzen gizona. Onduan dare: Lazkano sasofonistia, Amizeto Herrero, Ezezaguna, Juanito Bustindui, Juane Egotxia, Bixentiko Albistegi, Esteban Eguarbitza, Sabin Plaentxi, Migel Gantxegi eta Ander Larreategi aitta.

Patxi Zeleta, Gregorio Lapurdi, Jose Atxeta, Jose Fernandez, Lorentzo Antzuategi, Pedro Mikeletia, Jesus Larreategi, Jose Lonbide, Martintxoneko Txakurra "txiki", Felipe Zezeaga, Anton Alberdi eta Juanito Albistegi.

Danentzako agur bat emoteko eskatzen dosku Patxi Zabalak, guri bialduta-ko kartan. Emonda geratzen da ba.



Aldizkari
hauetan
guztietan
Gipuzkoako
foru
aldundia
izan dugu
bidelagun



Gipuzkoako foru aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria